

2024. urteko diru-laguntzen deialdia

Eremua: Garapenerako Lankidetza eta Giza Eskubideak

**Dirulaguntzen 6. lerroa: Sentsibilizazioa, Gizarte
Eraldaketaarako Hezkuntza – Urte biko programak**

1. artikulua: Eremua eta helburua

Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Sailak, Garapenerako Lankidetzaren eta Giza Eskubideen eremuaren barruan, "Sentsibilizazio gizarte eraldaketarako hezkuntzarako – urte biko programak" dirulaguntza lerroaren bidez dirulaguntzak emateko deialdia egin du, garapenerako lankidetzaren eta giza eskubideen alorrean eraldaketa sozialaren eta sentsibilizazioaren alorrean programak finantzazeko, eta horrela, Bilboko Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburua lortzen laguntzea, "Bilbon elkartasunaren, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta kulturartekotasunaren balioen garapena sustatzea" lortzeko.

Proiektu eta programa horiek dirua irabazteko asmorik gabeko erakundeek gauzatuko dituzte, eta 2025eko abenduaren 31 baino lehen amaituko dira.

Gehieneko dirulaguntzak proiektu bakoitzeko: 8.000 eurotako da urtero (16.000 € osotara).

2. artikulua.- Aplikatzekoa den araudia

Eskaerak ebazteko prozedurak honako hauetan araututakoa beteko du:

- Bilboko Udalak eta haren zuzenbide publikoko erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorra (2016ko uztailaren 20ko BAO),
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta lege hori garatzen duen araudia.
- 39/2005 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arrunta.

Halaber, honako lege hauetan dirulaguntzen gainean ezarritakoa ere aplikatuko da:

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, zehazki I. titulua.
- 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzkoa, zehazki II. titulua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 10/1982 Oinarrizko Legea, azaroaren 24koa, Euskararen Erabilera Normalizatzeakoa.

3. artikulua.- Entitate onuradunak.

3.1. Elkarteek eta dirua irabazteko asmorik gabeko entitateek dirulaguntza eska dezakete, baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Egoitza nagusia edo ordezkariak iraunkorra Bilbon edukitzea, agiri bidez egiaztaturik, gutxienez, laguntza hauek eskatu baino bi urte lehenagotik.
- b) Estatutuko helburuen artean gizarte-eraldaketarako eta sentsibilizaziorako hezkuntza edo giza eskubideen defentsa eta sustapena izatea, garapenerako lankidetzaren eremuan.
- c) Deialdi honen eremuko jarduerak bultzatzen presentzia aktiboa izatea Bilbon.

Ondorio horietarako, udalerrian presentzia aktibotzat hartuko da azken bi urteetan entitatearen eremutik kanpoko jardura zabal eta publikoak egin izana, adibidez:

- Sentsibilizazio eta elkartasun kanpainak.
 - Ikastetxeetan, entitate sozialetan, auzo elkarteetan eta bestelakoetan egindako sentsibilizazio edota formakuntza jarduerak.
 - Deialdi honen eremuarekin zerikusi duten erakusketak.
 - Gaiarekin zerikusi duten testuak, gida didaktikoak, artikulak, erreportajeak eta ikerketak argitaratzeko edota ikertzeko jarduerak.
 - Bilboko Lankidetzarako Udal Kontseiluko kide izatea eta haren jardueretan parte hartzea.
- d) Erakunde eskatzaileak, deialdiaren aurreko 4 urteetan, Sentsibilizazio, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza eta Giza Eskubideen arloan gutxienez proiektu bat gestionatu dituela Bilboko Udalak Diru laguntzen Deialdiaren barruan emandako diru laguntzen kargura, eta erakunde arduradun edo partzuergo baten kide modura jardun duela.
 - e) Entitateen partzuergoak (edo izaera juridikoki gabeko elkarteek) ere eska dezakete dirulaguntza. Hala eta guztiz ere, entitate bat izendatu beharko dute taldearen ordezkari edo ahalordendun, eta taldeari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko adina ahalorde izan beharko ditu. Entitate ordezkari honek aurreko puntuetako baldintza guztiak bete beharko ditu eta hark izango du partzuergo edo elkartearen ordezkariak administrazio-espedituean. Eskaera partzuergoak bere gain hartutako exekuzio-konpromisoak jasotzen dituen dokumentu bat jaso beharko da. Partzuergo-elkartea ez desagiteko konpromisoa formalizatu beharko dute, preskripzio epea igaro ez den artean, dirulaguntza jaso ahal izateko. Eskabidean agertu beharko dira entitate bakoitzak bereganatu dituen konpromisoak.
- Partzuergoko partaide guztiek bete beharko dituzte 3.3. artikularen betebeharrak.
- f) Deialdi honen ebazpena ateratzerako, 2022ko edo lehenagoko Dirulaguntzen Deialdiei dagozkien dirulaguntzak justifikatuta eduki beharko ditu entitate eskatzaileak. Organo eskudunak ebazpen bidez ezetsiko ditu baldintza hori betetzen ez duten dirulaguntza-eskaerak.

3.2. Elkarte eskatzaileek Bilboko Udalaren herritarren parte hartzerako entitateen erregistroan (Herritarren Arreta eta Partaidetzako Sailean dagoena, Venezuela Plaza 2, 4.a) izena emanda egon behar dute eta datuak gaurkotuta eduki behar dituzte eskariak aurkezteko epea amaitzean.

3.3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak eta Bilboko Udalarekiko tributu-betebeharrak ordainduta izan behar dituzte entitate eskatzaileek eskaera aurkezten den unean, dirulaguntza ematean, betebeharra onartzean eta ordaintzean ere bai.

4. artikulua.- Aurrekontu-kredituak.

4.1. Deitutako diru-laguntzak Bilboko Udalaren aurrekontu orokorreko aurrekontu kodearen PEP 2015/00171, 2024 eta 2025ko ekitaldirako onartutako 2015 32000 4 00171 00 2024 gastu-proiektuaren kontura finantzatzeko dira.

Deialdi honetarako zenbatekoa 80.000 (40.000 € 2024 ekitaldirako eta 40.000 € 2025 ekitaldirako) eurokoa izango da.

4.2. Hala ere, deialdia onartzen denetik dirulaguntza eman arte egoera ekonomikoak txarrera egingo balu, kopuruak jaitسي egin ahal izango dira, defizitik ez izateko; administrazio publikoen betebeharrak hori Aurrekontuen Egonkortasunari eta Finantzen Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa dago ezarrita eta, beraz, aurrekontuak doitzekoa ere bai.

5. artikulua. Dirulaguntza emateko prozedura

5.1. Norgehiagokako erregimenean ezarri da dirulaguntza-lerro honetako dotazio ekonomikoa. Aurkeztutako eskabideak erkatu eta horien lehentasun-ordena ezarriko da, 9. artikuluan agertu diren irizpideen arabera. Horrela, baloraziorik onena izan duten eskabideei dirulaguntza emango zaie, deialdian ezarritako aurrekontua inola ere gainditu gabe.

5.2. Hemengo 6. lerroan onartutako dirulaguntzen zenbateko osoa txikiagoa baldin bada horretara bideratutako diru-zenbatekoa baino, gerakinak gehitu egingo du 2024/00083 PEPe 5. lerroa bideratutako zenbatekoa: gizarte-eraldaketarako eta sentsibilizaziorako hezkuntza – urteko programak.

5.3. Norgehiagokako lehiaketan, 60 puntuko gutxienekora helduta, programa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera kopurua emango zaie, honako taula honekin bat etorrita:

Programari emandako puntuak	Emango zaion dirulaguntzaren %a
80 puntutik gora	Eskatutakoaren % 100a
70 eta 80 puntu bitartean	Eskatutakoaren % 80a
70 puntutik behera	Eskatutakoaren % 70a

6. artikulua.- Diruz laguntzeko diren kontzeptuak.

Dirulaguntza eskatzen duten programek baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Bilboko gizarteari zenbait balioz informatzen, irakasten, sensibilizatzen, kontzientziatzen eta konprometitzen laguntzea: bakerako eskubide unibertsala,

herri txiroek garapenerako duten eskubidea, bizikidetza dibertsitatearen eta kultur artekotasunean, tolerantzia, berdintasuna eta elkartasuna.

- b) Biltzarrak, informazio-hitzaldiak, prestakuntza-ikastaro laburrak, hezkuntza formal edo ez-formaleko ekintzak, mintegiak, kanpaina tematikoak, kale ekintzak eta antzerakoak jasotzea.

Ez dira lagunduko azterketak, ikerketak, didaktika- edota informazio-argitalpen berriak eta itzulpenak, ezta entitatea bera indartzeko proiektuak ere.

- c) Programan diruz lagundutako kontzeptuak gastu arruntari atxikitakoak izango dira, eta ez kapital-ondasunei lotutakoak (ekipo informatikoak, eta abar).
- d) Indarrean dagoen ekitaldi-aurrekontuan hasi behar dira, edo transferentzia ordaindu zenetik 2 hilabete igaro baino lehen.
- e) 2025ko abenduaren 31 baino lehen amaitu behar dira.

Bilboko Udalak berariaz baimentzen badu, epe hori luzatu ahalko da, justifikatutako arrazoiengatik.

- f) Deialdi honen bidez, Bilboko Udalaren finantzaketa, guztira, proiektuaren kostu osoaren % 100ekoa izan daiteke. Ez da inolako balorizaziorik onartuko.
- g) Sentsibilizazioa, gizarte-eraldaketarako hezkuntza eta giza eskubideen sustapena baliotan hezteko proposamen gisa hartzea, eta proposamen horrek epe ertain eta luzean pertsonen irakastea berdintasun eza dakarten kausa estrukturalak ulertzen, eta giza eskubideak errespetatzen dituen mundu bat lortzeko aldaketa sozial orokorraren alde egitea.
- h) Proiektuak igortzen dituen mezuek eta irudiek GKEen Koordinakundearen 1998ko Jokabide Kodea betetzea. Kode hori Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluaren Araudian eranskin gisa ageri da.
- i) Generoaren ikuspegia jasotzea, Emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean azaltzen den moduan ulertuta: emakumezkoen eta gizonezkoen egoera, baldintza, asmo eta beharrian desberdinak sistematikoki kontuan hartzea, politika eta ekimen guztietan eta beren planifikazio, betearazte eta ebaluazio fase guztietan desberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzera bideratutako helburu eta jarduerak txertatzen direla bermatzeko.
- j) Proiektua iragartzeko erabiliko diren komunikazio-euskarri guztietan Bilboko Udalaren logotipoak agertu behar du, Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Sailaren argibideak kontuan hartuta. Entitate onuradunak material horiek aldeztu aurretik gainbegiratzeko aukera emango dio Bilboko Udalar. Betebehar hau betetzen ez bada, onartutako dirulaguntza itzultzeko prozedura abian jar daiteke.
- k) Lankidetzan aritzea Bilboko Udalarekin, edo Bilboko Lankidetzaren Udal Kontseiluarekin edo egoki irizten den beste entitatekin batekin, herritarrei proiektuaren garapenaren berri emateko, eta sentsibilizazioari buruz eta gizarte-eraldaketarako hezkuntzari buruz etorkizunean elkarrekin antola litezkeen jardueretan parte hartzea.

7. artikulua.- Eskabideak

7.1. Aurkezteko epea.

Eskaerak aurkezteko epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da eta 2024ko otsailaren 16an amaituko da.

7.2. Informazioa eta dokumentazioa.

Deialdiari buruzko informazio eta dokumentazio guztia hemen egongo da eskuragarri:

- Bilboko Udalaren web-orrian (www.bilbao.eus).
- Bilboko Udalaren gardentasun-atarian (www.bilbao.eus/cs/Satellite/transparencia/es/inicio).
- Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean (www.infosubvenciones.es).
- Bilboko Udalaren Herriarren Informazio Bulegoan eta barrutietako udal bulegoetan, ohiko ordutegietan.

7.3. Izapidetzea.

Udalaren web-orriaren bidez edo udal erregistroan egin daitezke eskaerak.

- Eskaera udalaren web-orriaren bidez izapidetuz gero, aplikazioak eskatzen dituen urrats guztiak eta datu guztiak eman beharko dira.
- Eskaerak udal erregistroan aurkeztuz gero, eremu eta dirulaguntza-lerro bakoitzerako eskaera-orri bat bete beharko da, Bilboko Udalak emandako ereduak erabiliz.

Orri horretan zehaztuko dira eskaera egin duen entitateak dirulaguntza-lerro horretarako aurkeztu dituen programak, lerroa banakatuta dagoen eta dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuen arabera.

Eskaera-orria Herriarren Arreta Bulegoan edo barrutietako udal bulegoetan aurkez daiteke, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatzen diren legezko beste leku batzuetan ere.

7.4. Erakundearen legezko ordezkaritza edo legezko ahalordea duen pertsonak sinatuko du eskabidea, aditzera emanez adierazitako datu guztiak egiazkoak direla eta erakunde eskatzaileak onuraduna izateko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikuluak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 24.2 artikulua eta 1/2022 Legearen 21bis.b artikulua, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea biarren aldiz aldazen duena, ezartzen dituzten debekuetako bat ere ez duela, eta eskaeran adierazitako datuak egiazkoak direla.

7.5. Dirulaguntzaren eskaerak ez dira inoiz ere izango programa bati emateko gehieneko diru-zenbatekoa baino handiagoak. Gehieneko kopuru hori diruz lagundu ahal den kontzeptu bakoitzerako ezartzen da.

7.6 Era berean, eskaera guztietan izan behar da kontuan dirulaguntzen bidez nahiz beste iturri batzuetatik eskuratzen den finantzaketa osoak ezin duela gainditu aurkeztu den programaren kostua.

7.7. Aurkeztutako eskabidea hobeto baloratzeko egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal dizkie Bilboko Udalak entitate eskatzaileei.

7.8. Programa bakoitza dirulaguntzen lerro baterako bakarrik aurkeztu beharko da.

7.9. Eskaera egiten duen entitate bakoitzak programa bakar bat aurkeztuko du Garapenerako Lankidetzaren eta Giza Eskubideen eremuaren 5. eta 6. lerroetarako.

8. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

8.1. Eskaria Udalaren web-orriaren bidez izapidetzen bada, bi agiri erantsi behar dira PDF formatuan:

- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Sentsibilizazioko, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako eta Giza Eskubideetako proiektuei laguntzeko eskari-orria (2024. urtea) – 5. eta 6. lerroak" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.2. Eskaria **udal erregistroan** aurkeztzen bada, **dokumentazio** hau gehitu behar zaio:

- Programa bakoitzaren laburpen-fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Programa bakoitzaren aurrekontuaren fitxa, emandako ereduaren arabera.
- Landuko den programa bakoitzaren edukia azaltzen duen dokumentu bat; dokumentu horretan, gainera, aurkeztutako gastu-aurrekontua zehatz-mehatz azaldu behar da, "Sentsibilizazioko, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzako eta Giza Eskubideetako proiektuei laguntzeko eskari-orria (2024. urtea) – 5. eta 6. lerroak" deritzon ereduaren arabera.
- Erakundeak aurreko urtean egin dituen jardueren memoria (salbu erakundea duela gutxi sortu bada).

8.3. Eskaera sinatzen duenak espresuki baimenduko dio Bilboko Udalari egiazta dezala betebeharrak fiskalen eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean daukan. Dena dela, baimena espresuki ukatu ahal izango du, baina, horretarako, aurkeztu beharko ditu zerga-betebeharrak ordainduta dauzkala egiaztatzen duen agiria eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak ordainduta dauzkala edo langilerik ez daukala egiaztatzen duen agiria, administrazio eskudunak indarrean dagoen urtean emanak.

8.4. Bilboko Udalaren dirulaguntzarik edo beste edozein kontzepturengatik ordainketarik jaso ez duten eta, beraz, Hartzekodunen Erregistroan ez dauden erakundeek "hartzekodunen fitxa" aurkeztu behar dute, behar bezala beteta (eman egingo zaie).

8.5. Dirua irabazi asmorik gabeko erakundeek, elkarte ez badira, 3.1 artikuluan ezarritako betekizunak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte:

- Erakundearen estatutuak.

- Dagokion erregistroan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Erakundeak Bilbon duen egoitza nagusia edo ordezkaritza egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.

8.6. Eskabidea behar bezala beteta ez badago edo aipatutako datu edo agirietakoren bat falta bazaio, entitate eskatzaileari 10 laneguneko epean hutsak zuzentzeko eskatuko zaio; hala egin ezean eskabidea bestelako izapiderik egin gabe artxibatuko dela ohartaraziko zaio.

9. artikulua.- Balorazio irizpideak

Aurkeztutako programak irizpide eta puntuazio hauen arabera baloratuko dira:

A) ENTITATEA baloratzeko irizpideak.....GUZTIRA 15 puntu

Zuzendaritza Batzordearen osaera (puntu 1 gehienez)

- Emakumeak: 40% (0,5)
- Emakumeak: 60% (1)

Pertsona kopurua eta osaera (sexuaren arabera banatuta) (gehienez 2 puntu)

Koordinakundeetan, sektore kontseiluetan, federazioetan, auzo sarretan eta besteetan parte hartzea (gehienez 2 puntu)

Sareko lana – Partzuergoa (gehienez 3 puntu)

Genero-ikuspegia entitatearen barne lanean (puntu 1 gehienez)

(Entitateak berdintasun-plana edo genero-politika dauka)

Proposatzen den eremuan proiektuak egiteko esperientzia eta kudeaketa-gaitasuna (gehienez 3 puntu)

Bilboko Udalaren dirulaguntzen kudeaketan esperientzia (puntu 1 gehienez)

Bilboko Udalak finantzatutako ekintzen jarraipena (0,5 puntu gehienez)

Proiektua laneko prozesu eta estrategia zabalagoetan txertatzea, eskaera egin duen entitatearen plan estrategikoen barruan (1,5 puntu gehienez)

B) PROGRAMAREN baloraziorako irizpideak.....GUZTIRA 85 puntu

1) AURREKONTUA..... 10 puntu gehienez.

Aurrekontua eta eskatutako dirulaguntza proiektuko helburu eta jardueri egokitzea (7 puntu gehienez)

Aurrekontuaren xehikapen gradua eta kostuen justifikazioa (3 puntu gehienez)

2) PROGRAMAREN KALITATEA 10 puntu gehienez.

Diagnostikoa eta programaren justifikazioa (gehienez 5 puntu)

- Proiektuari dagokion esparruaren diagnostiko xehea (2,5)
- Proiektuaren beharraren justifikazio xehea (2,5)

Espero diren emaitzak (2 puntu gehienez)

Ebaluazio eta/edo sistematizazio bat sartzea (puntu 1 gehienez)

Kanpo komunikazioa eta hedapen-sistemaren definizio maila (2 puntu gehienez)

3) PROGRAMAREN INTERESA 48 puntu gehienez

Programaren justifikazioaren, helburuen eta ekintzen arteko koherentzia (5 puntu gehienez)

Sailak diagnostikatutako esku-hartze eremua – Bat etortzea GJH hauetako batera bideratutako sektore-lehentasunekin: 4 (kalitate-hezkuntza), 5 (genero-berdintasuna), 6 (ur garbia eta saneamendua), 11 (hiri eta komunitate iraunkorrak) eta 12 (ekoizpen eta kontsumo arduratsuak) (gehienez 10 puntu)

Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua sustatzeko estrategiak indartzen dituzten osagaiak sartzeara (3 puntu gehienez)

Eskubideen enfokean sartzeara (2 puntu gehienez)

Proiektuak ingurumeneko eta jasangarritasuneko gaiei buruzko kontzientzia bultzatzen du (puntu 1 gehienez)

IV Plan Zuzendariaren zeharlerroak sartzeara (2 puntu gehienez)

Tokikoa eta orokorra lotzen dira, iparraldeko eta hegoaldeko garapena lotuta (gehienez 4 puntu)

Proiektuak berdintasun ezaren egiturazko kausak analizatzen eta ulertzen laguntzen du (2 puntu gehienez)

Metodologia berritzaileak erabiltzea (2 puntu gehienez)

Beste erakunde sozial batzuekin lan koordinatua egitea (etorkinekin, emakume elkarteekin, talde feministekin, auzo eta kultur elkarteekin...) (6 puntu gehienez)

- Elkarre horietako hiru edo gehiagorekin lan koordinatua egitea (6)
- Elkarre horietako birekin lan koordinatua egitea (4)
- Elkarre horietako batekin lan koordinatua egitea (2)

Programa sendotzea (puntu 1 gehienez)

Eremu geografikoa – Hiriko espazioak (2 puntu gehienez)

Identifikazioan eta exekuzioan parte hartzen duen kolektiboa (3 puntu gehienez)

Zein kolektibori zuzentzen zaion (4 puntu gehienez)

Proiektua zenbat pertsonarengana iritsiko deneko aurreikuspena (puntu 1 gehienez)

4) UDALAREN GAI TRANSBERTSALAK 17 puntu gehienez

Berdintasuna (5 puntu gehienez)

Emakumeek eta gizonen baliabideak (ekonomikoak, sozialak, kulturalak, kirolekoak, denbora, aisialdia, partaidetza sozial eta politikoa, enplegua, osasuna, etab.) eskuratu eta kontrolatzeko duten egiturazko desberdintasuna kontuan hartzen duten programak, beren helburuetan, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko eta/edo genero-indarkeria desagerrarazteko ekintza eta/edo neurri zehatzak aintzat hartzen dituztenak.

Kulturartekotasuna (2 puntu gehienez)

Kultura-aniztasuna eta lurraldeko migrazioei eta babeslekuari berariaz lotutako alderdiak kontuan hartzen dituzten programak, haien aintzatespenera eta ikusgarritasunera, berdintasunaren sustapenera eta diskriminazioaren aurkako borrokara bideratutako helburu eta ekintzekin, bai eta aniztasun-testuinguruetan elkarre ragin positiboa bultzatzera bideratutako helburu eta ekintzekin ere.

Gazteak (2 puntu gehienez)

12 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendutako jarduerak dituzten programak.

Euskera (4 puntu gehienez)

Herritar elebidunentzako euskarazko jarduerak dituzten programak

Ezgaitasuna (2 puntu gehienez)

Ezgaitasun fisiko, sentzorial eta intelektualak duten pertsonen erabateko parte-hartzea errazteko jarduketak edo zerbitzuak biltzen dituzten programak.

Osasuna (2 puntu gehienez)

Portaera eta jokabide osasungarriak garatzen laguntzen duten programak, osasun-arloko desberdintasunak azpimarratuz

10. artikulua.- Instrukzioa eta balorazioa

10.1. Prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko Lankidetza, Inmigratio eta Giza Eskubideetako Sekzioko teknikariek izango dute.

10.2. Balorazio Batzordea kide anitzeko organoa da eta, 1/2022 Legean ezarritakoaren arabera, martxoaren 3koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duena, hauek dira kideak:

Presidentea: **Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko zinegotzi ordezkaria**

Idazkaria: **Berdintasun, Bizikidetza, Lankidetza eta Immigrazio Saileko zuzendaria**

Kideak: **Sekzioko burua**

Garapenerako lankidetzako teknikariak

10.3. Eskakerak ebaluatu ondoren, deialdi honetan ezarritako balorazio irizpideekin bat etorritik, balorazio-batzorde batek txosten bat emango du, egindako ebaluazioaren emaitza zehazteko.

10.4. Balorazio Batzordearen txostenaren berri emango zaie Bilboko Lankidetzako Udal Kontseiluko Batzorde Betearazleari eta Garapenerako Lankidetzako Batzorde Berezi Mistoari, behin betiko ebazpen-proposamena egin aurretik.

10.5. Organo instruktoreak, Balorazio Batzordearen txostena ikusita, behin betiko ebazpen-proposamena egingo du.

11. artikulua. Berrir formulatzea

Programa guztien balorazioa egindakoan, entitate bati eman beharreko diru-zenbatekoa ez badator bat eskatutakoarekin, arau hauek bete beharko dira, Bilboko Udalaren deialdiaren bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen ordenantza orokorraren 10.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

A) Eman beharreko dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 edo handiagoa bada, Bilboko Udalak, ofizioz, erakundeak bere garaian aurkeztutako aurrekontua gutxituko du, proportzionalki.

Jarduera amaitzean aldatutako azken aurrekontu hori izango da justifikatu beharrekoa.

B) Eman beharreko dirulaguntza eskatutako zenbatekoaren % 70 baino txikiagoa bada:

a) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro edo gutxiago bada, prozedura aurreko atalean (A) zehaztutako berbera izango da;

- b) eta eskatutako zenbatekoa 2.000 euro baino handiagoa bada, Bilboko Udalak erakundeari jakinaraziko dio 10 eguneko epean programa berrantolatu beharko duela, aurrekontua zenbateko horren arabera egokituz, edo, bestela, dirulaguntzari uko egin beharko diola. Udalak, erakundearen erantzun espresua jasotzen ez badu, ulertuko du dirulaguntzari uko egitea erabaki duela.

12. artikulua.- Ebazpena

12.1 Gobernu Batzordeak ebatziko du prozedurari buruz.

12.2. Eskariak ebazteko eta eskaera egin duten entitateei jakinarazpena egiteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi hau argitaratzen denetik hasita. Dirulaguntza guztiak jakinaraziko dira: ematen direnak eta ematen ez direnak.

Sei hilabeteko epea amaitu eta ebazpenaren berririk jaso ez badute, erakundeek, administrazioaren isiltasuna dela eta, dirulaguntzaren eskaria atzera bota dutela uler dezakete.

12.3. Erabaki honen kontra, administrazio-bidea amaitzen duena, berraztertze errekurtso aukerakoa aurkeztu ahal duzu, Gobernu Batzordearen aurrean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bestela, Administrazioarekiko Auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kasu horretan ere.

13. artikulua.- Dirulaguntzen ordainketa

13.1. Orokorrean, dirulaguntzak justifikatu aurretik ordainduko dira. Ematea erabakitako diru-kopurua ordainduko da diruz lagundutako jarduerak burutu ahal izateko beharrezko finantzazio moduan inolako bermerik eskatu gabe.

13.2. Onartutako dirulaguntza banku transferentzia bidez ordainduko da, Udalaren Hartzekodunen Erregistroan ageri den entitatearen kontu korrontean dirua sartuz.

13.3. Justifikatzeko epea amaituta entitateak justifikatu gabeko dirulaguntzaren bat balu, ez zaio deialdi honetako dirulaguntzako kopurua ordainduko. Aurreko dirulaguntzaren bat itzultzeko eskatuta entitateak itzuli ez balu ez zaio dirulaguntza hau ordainduko.

13.4. Diru-laguntzaren 2. ordainketa 2025eko udal aurrekontuari dagokio eta 2025eko lehenengo hiruhilekoan ordainduko da.

14. artikulua. Entitate onuradunak dirulaguntzaren publizitatea egitea

Diru-laguntza jasotzen duten erakunde guztiek Udalaren finantziazioa jaso dutela adierazi beharko dute eta, horretarako, Bilboko Udalaren logotipoa jarri beharko dute sortzen dituzten paperezko materialetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak...), oroitzapenezko plaketan, bitarteko elektroniko edo ikus-entzunezkoetan eta idatzizko

komunikabideetan argitaratzen dituzten iragarkietan. Argitalpenetan, horrez gain, edukiaren gaineko erantzukizun-klausula bat jarri beharko dute, testu honekin:

Proiektu honek Bilboko Udalaren diru-laguntza jaso du, baina erakunde onuraduna da edukiaren erantzule bakarra.

Bilboko Udaleko sailek entitate interesdunei Bilboko Udalaren logotipoa emango diete. Gainera, erakundeek bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, erabili behar dituzte diruz lagundutako programa edo jardueraren publizitatea egiteko sortzen **dituzten** kartel, testu eta dokumentuetan. Orobat, diruz lagundutako jarduera sustatzeko adierazpen publikoak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dituzte, ordena horretan. Hala ere, hartzaileen eta komunikabideen ezaugarrien arabera, komunikazioak euskara hutsean egin ahal izango dira.

Artikulu honetan jasotako publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak betetzen ez badira, diruz lagundutako programa edo jarduerarako emandako zenbatekoaren %10 itzuli beharko da.

Erakunde onuradunek jaso dituzten diru-laguntzen publizitatea gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean ezarritako moduan eta baldintzen arabera egin beharko dute. Lege horretako 5.4 artikuluan jasotako aurreikuspenaz baliatuz gero, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalak bitarteko elektronikoa erabiliko du publizitatearen inguruko zereginak betearazteko.

15. artikulua.- Azpikontratazioa

Erakunde onuradunek, jarduerak azpikontratatzeko, deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorreko 13. artikuluan eta Dirulaguntzen Lege Orokorreko 29.2 artikuluan ezarritakoa bete behar dute. Era berean kontuan izan beharko dituzte Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea bigarren aldiz aldatzen duen martxoaren 3ko 1/2022 Legeak sartutako betebeharrak.

16. artikulua.- Programaren aldaketa

Programan aldaketa handiren bat egin aurretik, eskaria egin behar zaio Bilboko Udalari, erregistroa medio, eta Udalak berariaz baimendu behar du.

Aldaketa handiak egiteko eskariak arrazoitu egin behar dira, eta aurrekontuan eta kronograman zer eragin izango duten zehaztu behar da. Gobernu Batzarrak dagokion saileko ordezkariari eskuordetu dio aldaketa horiek baimentzeko zeregina.

Honako hauek hartzen dira aldaketa handitzat:

- Helburu orokor eta berezietan aldaketak egitea.
- Onartutako aurrekontuko partidetan % 20tik gorako aldakuntzak (partiden arteko aurrekontu-aldakuntzek ez dute eraginik izango zeharkako kostuetan), programaren guztirako aurrekontua gutxitzen ez badute.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzea badakar, Gobernu Batzordeak onetsi beharko du.

Dirulaguntzaren izaera eta helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa, berriz, justifikazioaren unean onartu ahal izango da, betiere onarpen horrek ez badakar hirugarrenen eskubideak kaltetzea.

17. artikulua. Uko egitea

Behin diru-laguntza emanda, erakunde onuradunek diru-laguntzari uko egitea eska diezaioke Bilboko Udalari, erregistro bidez.

Eskaria jarduera gauzatzeko epea amaitu baino lehen aurkeztu behar da eta dagokion saileko ordezkaritzak onartu ondoren izango du eragina. Erakundeak, hala badagokio, jasotako zenbatekoa itzuli beharko du.

Uko egiteak kreditu nahikoa askatzen badu ukatutako eskabide bati erantzuteko, deialdian ezarritako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditzeagatik, laguntza ematen duen organoak erabaki ahal izango du, beste deialdirik egin behar izan gabe, diru-laguntza ematea haren ondorengo pertsona edo erakunde eskatzaileari edo eskatzaileei, puntuazioaren arabera.

18. artikulua. Beste diru-laguntza batzuekin bateratzea

Bilboko Udalak emandako diru-laguntzak bateragarriak dira beste administrazio edo erakunde publiko eta pribatu batzuek emandako diru-laguntzekin. Betiere, diru-laguntzen eta beste iturri batzuen bitartez jasotako finantziazioak ezin du izan diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa.

Erakunde onuradunek Bilboko Udalari jakinarazi behar diote proiektu bererako beste diru-laguntza edo laguntza finantzario batzuk jaso dituztela, beste administrazio publiko batzuek emanda, udal ebazpenaren ondoren. Horretarako, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epea izango da, gehienez.

19. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa

19.1. Justifikatzeko epea.

Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea 3 hilabetekoa izango da, programa amaitzen denetik edo horren ostean dirulaguntza ematen bada ematen denetik hasita.

19.2. Justifikatu beharreko zenbatekoa

Dirulaguntza eskatzeko aurkeztutako aurrekontuaren %100 justifikatu beharko da eta ez Bilboko Udalak emandako zenbatekoa bakarrik; horrela ezartzen baitu Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak.

19.3. Justifikatzeko modua.

19.3.1. Entitate onuradunak programa, proiektu edo ekintzan egindako gastuaren kontu justifikagarria aurkeztu beharko du, ondoren aipatzen den moduan.

Justifikatzeko kontuak haxe izan behar du:

- a) Programa betearazteko egin diren jardueren memoria, eta izandako emaitzak. Eskaeran aurkeztutako programarekin bat etorriko da hori guztia.

- b) Justifikazio-kontuaren barne, dokumentazio originalarekin batera, egindako gastuen zerrenda zenbatua erantsiko da ordena korrelatiboan, onartutako aurrekontuan agertzen den moduan. Zerrenda ondorengo ereduaren bezala osatuko da: faktura edo dokumentu zenbakia, ordainketa egiten duen entitatea (erakunde eskatzailea nahiz tokian tokiko alderdia izan daiteke, Elkarrekin Fitxak ezartzen duenaren arabera), data, partida, kontzeptua, entitate hornitzailea, zenbatekoa bertako txanponean (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren dirulaguntzen kasuan), zenbatekoa eurotan. Zerrenda horretan, agiri hauek erantsiko dira, proiektuaren zenbatekoa osatu arte: nominak, egiaztagirak eta faktura originalak edo notarioak konpultsatutako kopiak edo dirulaguntzaren zenbatekoaren azkeneko erabilera egiaztatzeko balio juridikoa duen beste edozein agiri (Nazioarteko Agentzien kasuan, ezaugarri bereziekin). Proiektuaren aurrekontuaren % 100 justifikatu behar da jatorrizko fakturekin. Horiek berreskuratu nahi izanez gero, fakturen kopiak ere ordena berean entregatu behar dira.

Proiektuak beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzak jaso baditu, orduan ekainaren 16ko 795/2010 Errege Dekretuko 33. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, administrazio publiko horien fondo-ekarpenei dagokienez.

Kutxako ordainagirak erabiltzeko baimena ematen da, betiere ekainaren 16ko 794/2010 Errege Dekretuaren 40.3 artikuluan adierazitako eran.

- c) Programen burutzapenari dagozkion gastuen eta diru-sarreraren balantzea, udalak emandako ereduari jarraituta.
- d) Programa betetzeko fakturak, udalak emandako ereduari jarraituta.
- e) Deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen dituen Ordenantza Orokorraren 14.2. artikulua ezarritakoarekin bat, programa betearazteko aurreikusitako epe barruan egindako gastuak egiaztatzen dituzten jatorrizko agiriak. Horretarako, hauek desberdinduko dira:
- Programaren betearazpenarekin zuzenean lotutako kostuak, zeinak oso-osorik justifikatu beharko diren fakturekin edo froga-balio baliokidea duten gainerako dokumentuekin.

Gastuak justifikatzeko agirietan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

- Entitate onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren xedearen deskribapena. Zuzeneko zerikusia izan beharko du programa gauzatzearekin.

Era berean, justifikatzen den programari buruzkoak bakar-bakarrik izango dira justifikazio-agiriak.

Salbuespen modura, enpresaburuak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriaren kopiarekin batera (NAN, AIZ edo pasaporte). Ordainsaria 200 euro baino handiagoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Langile-gastuak nominak eta Gizarte Segurantzako kotizazioak aurkeztuz egiaztatuko dira. Egotzitako nominen zenbatekoa sortutako guztizkoaren gainean kalkulatu behar da.

- Zeharkako kostuak: beren-beregi eskatu ezean, ez da ezelako ziurtagiririk aurkeztu beharko. Kostu hauek diruz lagundutako jarduerari atxikiko dizkio, arrazoizko neurrian, entitate onuradunak, normalean onartzen diren kontabilitate arloko printzipio eta arauekin bat etorrita eta, betiere, kostu horiek jarduera gauzatzen den aldikoak badira. Jarduerari dagokion kostua ez da inoiz izango diruz lagundutako programaren zuzeneko kostuen % 10 baino handiagoa.

Justifikazioa egiteko orduan, dirulaguntza jasotzeko oinarri gisa entitateak aurkeztu duen aurrekontuko portzentaje berbera izango da zeharkako kostuen onarturiko portzentajea, eta justifikatutako zuzeneko gastuen gainean aplikatuko da.

- f) Diruz lagundu daitekeen kontzeptuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean kontratu txikirako ezarritakoa (zerbitzuak eta horniketak 15.000 euro eta BEZa, obrak 40.000 euro eta BEZa) baino handiagoan denean, erakunde onuradunak gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile desberdinei obra egiteko konpromisoa hartu baino lehen, zerbitzua eman baino lehen edo ondasuna eman baino lehen.

Aurkezten diren eskaintzak, berriz, efizientzia- eta ekonomia-irizpideen arabera hautatuko beharko dira, eta justifikazioan edo, hala badagokio, dirulaguntzaren eskaeran aurkeztu beharko dira; proposamen ekonomikoki abantailatsuena hautatzen ez bada, memoria batean justifikatu beharko da espresuki hautaketa hori.

- g) Datu hauek aurkeztu beharko dira:

- Onuradun kopurua guztira (sexuaren eta kolektiboaren arabera)
- Egikaritzean euskara kontuan hartzen duten jarduera kopurua

19.4 Justifikatzeko beste betebeharrak.

Memorian hizkuntza eta/edo irudi ez-sexistak erabili behar dira. Gainera, baloratu eta puntuatutako zeharkako politikei buruzko datu hauek aurkeztu beharko dira.

19.5. Justifikaziorik ez edo justifikazio nahikorik ez.

Justifikazio-betebeharra ez betetzeak, nahikoa ez justifikatzeak edo 14.artikuluari aipatzen den publizitate-betebeharra eta zabalkunde-neurriak ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharra, berandutze-interesarekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan ezarritako baldintzetan.

20. artikulua.- Emandako dirulaguntzen publizitatea

Urtea amaitu baino lehen, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak Udalaren web-orrian argitaratuko dira.

Halaber, Diru-laguntzen Datu-base Nazionalen diru-laguntzen berri emango da, Diru-laguntzen Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera.